

GURA MARKETin

**2014-2017 Dinamizazio Planaren gaurkotzea
2018-2021 urteetara**



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Aurkibidea

• Informazio kualitatiboa.....	4
• Urola Kosta (Itourbask):	
• Urtarokotasuna.....	5
• Bisitari totalak.....	7
• Bisitariak jatorriaren arabera.....	8
• Euskaditik datozen bisitariak	9
• Estatutik datozen bisitariak	11
• Atzerritik datozen bisitariak	13
• Mundu osoko bisitarien pisua totalarekiko.....	14
• Sarrerak hotel eta nekazaletxeetan (EUSTAT).....	16
• Igarotako gauak (EUSTAT).....	19
• Herrika	
• Getaria.....	23
• Orio.....	24
• Zarautz.....	25
• Zumaia.....	26

Aurkibidea

• Informazio kuantitatiboa.....	27
• Elkarrizketak eta galdetegi onorioak.....	28
• Turismo familiarren benchmarkina	36
• Sare sozialen benchmarkina	53
• Estrategia eta ekintza plana.....	71
• Helburu estrategikoak.....	72
• Ekintza Plana.....	73
• Eskualdera turismoari begira.....	74
• Kokapen turistikoa.....	76
• Produktua.....	81
• Marka.....	88
• Merkatua.....	91
• Komertzializaioa.....	101
• Komunikazioa.....	103
• UEMA.....	104


Informazio kualitatiboa



Sarrera

- Jarraian informazio kuantitatiboari buruzko azterketa bat egiten da. Datu horiek Itourbaskek eskainitakoak dira.
- Urola Kostak zenbat bisitari jasotzen dituen aztertzen da. Datuak 11 urteri dagozkie, 2006-2016.
- Lehenik Urola Kostako herri guztiak batera aztertzen dira, eta ondoren herri bakoitza aztertzen da laburki.
- Urola Kosta:
 - Urtarokotasuna
 - Bisitariak jatorriaren arabera
 - Bisitari totalak
 - Euskaditik datozen bisitariak
 - Atzeritik datozen bisitariak
- Herrika
 - Getaria
 - Zarautz
 - Zumaia

Urtarokotasuna




Uztaila eta abuztua dira bisitari gehien jasotzen dituzten hilabeteak. Hala ere, aipatzekoa da abuztuak duen garrantzia, uztailak baino 10 puntu portzentual gehiago edukiz.

Ekainak eta Iralak ere bere garrantzia dute; hala ere, haien pisu portzentuala uztaila eta abuztukoa baino dezente baxuagoa da.

Bestalde, esan dezakegu 11 urte hauetan ez dela aldaketa esanguratsurik gertatu; hau da, egoera egonkor mantendu da.

Bisitari totalak (2006-2016)




Iturria: Itourbask

Urola Kostako bisitariak orokorrean gorakor joera izan dute 11 urteetan zehar. 2016ko bisitari kopurua 2006koaren bikoitza izatera iritsiz. Beraz, igoera nahiko nabarmena da.

*OHARRA: 2013tik aurrera Getaria gehitzen da datu hauetara eta beraz igoera nabarmenagoa bihurtzen da urte horretatik aurrera udalerrri bat gehiago hartzen delako kontutan.

Bisitariak jatorriaren arabera (2006-2016)




Iturria: Itourbask


Urola Kostara etortzen direnen artean, Estatutik datozenak dira ugariena, bestetik alde nabarmena izanez. Bestalde, 11 urte hauetan zehar, atzerritarrek Euskadikoak baino gehiago izan dira. Bisitari guztiek gorakor joera azaldu dute; hala ere, hauen makurdura desberdina izan da. Pisu portzentualari dagokionez, ez da aipatzeko aldaketarik nabari.

Euskaditik datozen bisitariak (2006-2016)

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua




Iturria: Itourbask

Euskaditik datozen turista kopuruak gora egin du 11 urte hauetan, 2016ean 2006ko zifra bikoiztera iritsiz. Antzekotasuna ikus daiteke Euskadiko bisitarien grafikoaren eta aldez aurretik ikusi dugun Urola Kostako bisitari totalen grafikoaren artean.


Hala ere, eta ehunekoen grafikoari erreparatuz, pisu portzentualak behera egin duela ikus dezakegu. Hau Estatuko eta Atzerriko bisitarien igoera esanguratsuago bati zor zaio.

Euskaditik datozen bisitariak (2006-2016)



Urola Kostara azken urteotan Euskaditik etortzen direnen artean Gipuzkoa da nagusi, bisitarien erdia baino gehiago hartzen duelarik. Ondoren Bizkaitarrak aurkitzen ditugu, Euskadiko bisitari totalen heren bat hartzen dutelarik. Amaitzeko Arabarrak dira gutxien, %15 eskas batekin.

Estatutik datozen bisitariak (2006-2016)




Iturria: Itourbask

Estatuko bisitari kopurua nabarmenki hazi da 11 urte hauetan zehar. Parekotasun asko nabari da Estatuko bisitarien joeraren eta Urola Kostako bisitari totalaren artean. Orokorrean joera gorakorra izan da.

Estatuko bisitariak totalarekiko eduki duten pisuak, ordea, aldaketa gehiago izan ditu Euskadiko eta Atzerriko bisitarien kopuruaren arabera.

Estatuko bisitariekiko autonomia erkidego bakoitzak duen pisua




Iturria: Itourbask


Estatutik datozen bisitarien artean, aipatzekoak dira Katalunia eta Madril, Katalunia nabarmenagoa izanik. Gainera, aipatzekoa da hauen kontrako joera, Kataluniak beherakor joera baitu eta Madrilek gorakorra. Halaber, Valentziak eta Andaluziak ere gorakor joera dute.

Atzerritik datozen bisitariak (2006-2016)

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua




Iturria: Itourbask

Atzerritar kopurua hazi egin da 11 urte hauetan zehar. Datu hauek antzekotasun handia azaltzen dute aldez aurretik azaldu dugun bisitari totalen grafikarekin. Honek ikusarazi egin du atzerritarrek totalarekiko duten garrantzia.

Pisu portzentualari dagokionez, aldaketak dira nabari, baina beti % 25-29 artean ibiltzen da.

Atzerritik datozen bisitariak (2006-2016)

Atzerriko jatorri-herrialde garrantzitsuenak




Iturria: Itourbask

Bisitari atzerritarren artean lider argi bat dagoela ikusten dugu: Frantzia hain zuzen ere. Urola Kostara datozen 10 bisitari atzerritarretik 4 Frantsesak dira. Oso datu esanguratsua da hau. Alemaniarrak eta Erresuma Batukoak ere nahiko ugariak dira, ia %20 bien artean. Ondoren Estatu Batuarrak, Italiarrak eta Holandarrak aurkitzen ditugu.

Mundu osoko bisitarien pisua totalarekiko (2006-2016)


Bisitari ugarienak jatorriaren arabera



Iturria: Itourbask

Orain mundu osoko bisitariak nahastu ditugu haien artean ikusteko zeinek duen pisu gehien. Euskadi nahiko modu nabarmenean gailentzen da: 5 bisitarietatik 1 Euskalduna izan ohi da. Ondoren, Kataluniarrak, Frantziarrak eta Madrildarrak daude, oso kopuru esanguratsuekin. Jarraian Estatuko Autonomia Erkidego gehienak datoz, askoz ere pisu nabariagoa baitute Estatuko bisitarien atzeritarrek baino. Baina tartean Alemania eta Erresuma Batua sartzen dira, nahiz eta herrialde hauetako bisitarien ehunekoa totalarekiko nahiko txikia izan (%3tik beherakoa).


Sarrerak hotel eta nekazaletxeetan



Iturria: Eustat


Grafiko honetan argi eta garbi ikusten dugu azken urteotan nola joan diren sarrerak hazten hotel eta nekazaletxeetan. 2016an 2011. urtean baino 3.500 sarrera inguru gehiago erregistratu ziren.

Sarrerak hoteletan



Hotelen sarrerak jasan duten hazkundera oso nabarmena izan da azken urteotan: 2011tik 2016ra 3.000 sarrera inguru gehiago erregistratu dira eta horrek nahiko pisu handia du ehunekotan, 7.000 sarrera ingurutik 10.000 ingurura igaro baigara.


Sarrerak nekazaletxeetan



Iturria: Eustat

Nekazaletxeetan ere hazkundera eman da azken urteotan, eta nahiz eta txikiagoa izan kopuruan (400 bat sarrera gehiago) horren pisua ehunekotan ere nahiko handia da, 2.000 sarrera baino gutxiagoren gainean dela kontutan hartu behar baitugu.


Igarotako gauak




Grafiko honetan argi eta garbi ikusten da igarotako gauen batezbestekoa ez dela gehiegi aldatu azken urteotan, eta Urola Kostara datozen bisitariek 2 gau ematen dituztela batezbestez eskualdean. Badirudi gainera azken urteotan nahiz eta aldaketak oso txikiak izan, joera gorakorra hartzen ari dela kurba.

Igarotako gauak jatorriaren arabera


Estatuko bisitarien gauak totalarekiko



Euskaldunen gauak totalarekiko



Atzerritarren gauak totalarekiko



Iturria: Eustat

Grafiko hauetan adierazi nahi duguna zera da: urtean zehar igarotzen diren gauak nongo bisitariak igarotzen dituzten; hau da, jatorriaren arabera urtean zehar igaro diren gauak. Kasu honetan Estatuko bisitarien nagusitasuna begibistakoa da eta hazkunde dinamika batean sartu dela dirudi, oso apala den arren. Igarotako gau guztien artean %60 inguru Estatuko bisitariak igarotzen dituzte. Ondoren atzerritarrek dauzkagu %25-30 inguruan dabilzanak. Hauek ere nahiko konstante mantendu dira. Amaitzeko Euskaldunak aurkitzen dira, seguru aski gertutasunagatik eta garraio erraztasunagatik oso gau gutxi igaro dituztenak (kurba beherakorra da azken urteotan).

Sarrereren eta igarotako gauen laburpena

- Ikusi berri dugun bezala, hotel eta nekazaletxeetako sarrerek dezente egin dute gora azken urteotan. 2011tik 2016raino ia %40ko igoera totala eman da.
- Hoteletako sarrerek jasan dute igoera handiena ehunekotan eta kopuru absolututan: %44 bost urteetan zehar (71.440tik 102.608ra). Nekazaletxeak baita hazi dira, baina hotelen erdia inguru suposatu du igoerak ehunekotan, %22 hain zuzen ere (17.987tik 21.925era).
- Honen harira, argi eta garbi ikusten da hoteletako sarrerek nekazaletxeetakoek baino pisu anitz handiagoa dutela Urola Kostan:

Sarrera totalak	124.533
Hoteletan	% 82,4
Nekazaletxeetan	% 17,6


- Igarotako batezbesteko gauen inguruan, aldiz, igoera hau oso urria da, 2 gauko batezbestekoak gorabehera leunak jasan dituelarik azken urteotan, baina hortxe mantendu da.
- Amaitzeko, gauak igarotzen dituzten bisitarien jatorriari buruz zera laburtu dezakegu:
 - Euskaldunek oso pisu txikia dutela, gertutasuna dela
 - Totalaren %60 inguru estatukoak direla.
 - Atzerritarrak %30 dira gauak pasatzen dituztenen artean, gutxi gora behera.

Arestian aipatu bezala, kopuru hauek nahiko konstante mantendu dira.


Herriz-herri

Getaria

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua




Iturria: Getariako turismo bulegoa

Getarian Estatutik datozen bisitariak dira ugarienak, %60ko pisu portzentuala suposatuz, atzerriko bisitariak %30 inguru dabilta eta Euskadikoak %10 batean.


Ikusi daitekeen bezala, bisitari kopurua igo egin da hiru kasuetan eta hori dela eta hauen pisua ez du aldaketa nabarmenik izan.

Orio

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua




Iturria: Orioko turismo bulegoa


- ✓ Orion ere Estatutik datozen bisitariak dira ugarienak.
- ✓ Estatutik eta atzerritik datozen bisitari kopuruaren joera gorakorra izan da. Euskaditik datozenen zifra ordea, nahiz eta hasieran hazi, 2008tik aurrera beherakor joera izan du.

Zarautz

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua




Iturria: Zarautzko turismo bulegoa


- ✓ Zarautzera datozenen artean, Estatukoak dira ugarienak, totalarekiko %60 bat suposatuz, atzerritarrek %30 bat suposatzen dute eta Euskadikoak %10 bat.
- ✓ Zifrei erreparatuz, ikusi daiteke 2008ra arte Estatuko bisitariak behera egin zutela, urte hartatik aurrera errekuperatzen joan ziren, ala ere beti izan dira ugarienak.

Zumaia

Bisitari totalarekiko %



Bisitari kopurua



Iturria: Zumaiaiko turismo bulegoa

- ✓ Zumaian bisitari gehienak Estatutik datoz %50a baino gehiago izanik, gainera 2014 etik aurrera Estatuko bisitari kopurua asko hazi da.
- ✓ Atzerriko eta Euskadiko bisitarien pisua antzekoa da, bai eta hauen bisitari kopurua, nahiz eta 2016ean atzerrikoak pixka bat gailendu.

Informazio kualitatiboa



Haga clic para modificar el estilo de título del patrón

Elkarrizketen eta galdetegiaren ondorioak

- Presentzialak
- Online



Sarrera

- Urola Kostako turismoaren arloan sakontzeko eskualdeko profesionalen eta agente ezberdinen iritzia jaso ditugu. Horretarako bi bide ezberdin erabili ditugu:
 1. Elkarrizketa presentzialak.
- Eskualdean garrantzitsuak diren hainbat agente identifikatu ditugu: Basquetour, Foru Aldundia, ...
 2. Online Galdetegiak.
- Udan Survey Monkey plataforman galdetegi bat zintzilikatu genuen Urola Kostako enpresen iritzia ezagutzeko. Azkenean haiek dira egunero turismo arloan lan egiten dutenak eta haiek inork baino hobeto dakite gaur egungo egoera eta errealitatea.
- Jaso ditugun erantzunak edo komentarioak arlo ezberdinetan sailkatu dira:
 - **Urola Kostaren bilakaera eremu turistiko bezala**
 - **Garapen turistiko egokiena**
 - **Zergatik datoz bisitariak gure eskualdera?**
 - **Indartu beharko diren eremu edo errekurtsoak**
 - **Eskualdeko turismoan hobetzeko proposamenak**

Egindako galdetegien erantzunak

**Urola Kostaren
bilakaera eremu
turistiko bezala**

- ✓ Asko hazi da.
- ✓ Zumaiaren arrakasta nabaria da.
- ✓ Zarautz eta Getaria klasikoak dira.
- ✓ Orio eta Aia osagarriak dira.
- ✓ Urtero hobekuntza nabaritzen da.
- ✓ Zarautz, lehen, potentzia handiko puntu estrategikoa zen, eta orain Zumaia bilakatzen ari da.
- ✓ Beste inguruko herrien potentziala bilatu beharko litzateke....



Egindako galdetegien erantzunak

Garapen
turistiko
egokiena

- ✓ Zarautzekoarekin lerrokatuta dagoela.
- ✓ “Desfas camp” ez dagoenez turismo osasungarriagoa dutela.
- ✓ Jasangarria ingurumen eta kulturarekin.
- ✓ Desestacionalizazioa landu: urtean zehar bisitariak eskualde osoan zehar.
- ✓ Kalitatezko turismoa bultzatzeko hainbat politika ezarri.
- ✓ Ez dakite.



Getariako Txakolina



DENOMINACION DE ORIGEN

Egindako galdetegien erantzunak

Zergatik datoz
bisitariak gure
eskualdera?



- ✓ Hondartza.
- ✓ Bizitza kalitatea.
- ✓ Paisaia berdea.
- ✓ Eskualdeko bizimodua.
- ✓ Berezko kultura daukagu.
- ✓ Eskualdea ez da oso zabala: dena gertu dago.
- ✓ Gastronomia.
- ✓ Gaur egungo pelikulengatik.

Egindako galdetegien erantzunak

Indartu beharko diren eremu edo errekurtsioak

- ✓ Eskaintza orekatua eta koherentea, eskualde bezala sortu.
- ✓ Donejakue bidearen ostatuak sustatu.
- ✓ Zarautzen, Zumaian eta Getarian zentratzen dena zabaltzeko beharko litzateke...



Eskualdeko turismoan hobetzeko proposamenak

- ✓ Politika amankomun bat.
- ✓ Estrategia turistiko komun bat bultzatzea.
- ✓ Aparkalekuak.
- ✓ Garraio publikoa bultzatu.
- ✓ Dibertsifikazioa.



Egindako galdetegien laburpena

- Ez da osotasun bat bezala ikusten, eta herriak banaka eta bereizita aipatzen dira.
- Zumaiaren arrakasta nabaria da eta turismo arloan asko hazi da.
- Orio eta Aia haien artean osagarriak diren herriak bezala aipatzen dira.
- Badirudi etortzearen arrazoi nabarietako bat natura dela (hondartzak, paisaia berdea...) eta baliabide guztien gertutasuna.
- Garrantzi handia ematen zaio eskualdeko bizimoduari. Jendea bititza kalitateagatik, bizimodu motagatik eta berezko kultura aberatsagatik etortzen da baita ere. Horrez gain, badirudi bisitariek baloratzen duten beste zerbait gastronomia dela.
- Aipatzekoa da gaur egungo pelikulek eragin duten zirrara eta inpaktua eskualdearen inguruan.
- Amaitzeko, eskaintza eskualde bezala sortzea aipatzen da, proiektu turistiko komun bat hain zuzen ere. Proiektu honek eremu dibertsifikatu batera jo nahi du.

Haga clic para modificar el estilo de título del patrón

Benchmarkin-ak
-Turismo Familiarra
- Sare Sozialak

Turismo Familiarraren benchmarkin-a



Zer da turismo familiarra?

Zer da turismo familiarra?

- Turismo familiarreko oporretako motibazio nagusia familiarekin bidaiatzea da eta horren ondorioz, umeentzako egokituta dauden zerbitzuak dituzten helmugak bilatzen dituzte.

Orokorrean zer eskaintzen du turismo familiarrak?

- Familientzako **zerbitzu espezializatuak**.
- **Segurtasun araei** atentzio berezia, bai espazio publikoetan bai marka horrekin ziurtatuta dauden beste establezimenduetan.
- **Animazio egitarau** zabala, umeentzako zerbitzu eta jarduerak.
- Txikientzako **instalazio egokiak** toki publikoetan, ostatuan eta eskaintza osagarrietan.
- Eguneroko jarduera egitarauari buruzko **informazioaren** atzipen erraza, egonaldia hobeto planifikatzeko.
- **Zer da familia bat ikuspuntu turistikotik?**
- Familia taldea senar-emazte bat 18 urte baina gutxiago dituzten seme-alabekin definitu daiteke, aisialdirako eskaintza ugari eta txikienen beharrak (umeentzako menuak, jokuak etab.) betetzera egokitua dagoen helmugak bilatzen dituen. Orokorrean eta berez, familia umeak daudenean hartzen da, senar-emazte kontzeptuak hainbesteko garrantzirik eduki gabe.

Zer eskatzen du turismo familiarrak

¿Zer bermatzen du helmuga edo establezimendu bat turismo familiarrean espezializatzeak?

Helmuga bat turismo familiarrean espezializatzeko bere ostatu, sukaldaritza eta aisiaren **eskaintza** txikienei bideratuta egon behar da. Jarraian, horietako helmuga espezializatu batzuek dituzten eskaintza eta abantaila batzuk zerrendatzen dira:

- ✓ Eskumuturreko identifikagarriak
- ✓ Logela familiarrak edo zuzenean komunikatuak.
- ✓ Haurrentzako igerilekuak segurtasunarekin.
- ✓ Sehasken erabilgarritasuna.
- ✓ Haurrentzako klubak hondartzetan.
- ✓ Egokitutako sukaldaritza eskaintza.
- ✓ Aisialdirako eta jolaserako gune publikoak.
- ✓ Umeentzako animazio zerbitzu eta jarduera egitarau zabala.
- ✓ Umeentzako animazioa eta ikuskizunak kalean.
- ✓ Parke tematikoak eta ur-parkeak.
- ✓ Txirrinduan ibilbideak egiteko aukera

Sarrera

- Eusko Jaurlaritzak turismo familiarrean apustu egiten du, bisitariari Euskadi familian ezagutzera gonbidatzen du, segmentu horri zuzendutako foileto bat argitaratzen.
- Foileto horretan, informazioa hiru hiriburuetan bereizita azaltzen da: Donostia-San Sebastián, Bilbao-Bilbo eta Vitoria Gasteiz, eta Rioja Alavesa, Euskal Kosta eta Mendiak eta Euskal Bailarak.
- Aurreko puntuan aipatutako toki bakoitza atal desberdinetan banatuta azaltzen da, esaterako:
 - **Ba al zenekien?:** Kontaketa bateko era erabiliz leku bakoitzeko kultura kontatzen du, tonu eta hizkuntza erabiliz txikientzat interesgarria eta ulergarria izateko helburuarekin.
 - **...eta euria egin ezkeror?:** Ideiak proposatzen ditu euria egiten duen egunetan txikienekin egin daitezkeen planen inguruan.
 - **Ez zaitez joan ... gabe:** atal honetan azaltzen ditu leku bakoitzeko “ezinbestekoak”, bisitariak galdu ezin dutena.
- Liburuxka hau aztertu ondoren, ondoriozta daiteke baliabideak, zerbitzuak... egokitu egin direla; hau da, Euskadiko eskaintza turistikoa turismo honen beharrei egokitu behar dela.
- Jarraian, liburuxkan azaltzen den informazioari buruzko azterketa labur bat egingo da, baita eskaintza turismo familiarrean nola moztarrotu denen inguruan.

Aztertu diren helmugak

Euskadi



EUSKAL KOSTALDEA

EUSKAL MENDIAK ETA ARANAK

Besteak



CARTAGENA
CIUDAD DE TESOROS
Concejalía de Turismo



Sarrera

- Espainiako Familia Ugarien elkartearen lan lerro bat Turismo Familiarra da eta horregatik, turismo familiarrarentzat marka bat sortu zen. Turismo mota honetan espezializatuak dauden helmugak eta establezimenduak sustatzen eta bereizten dira.
- Marka honen babesean dauden helmugen eskaintza hurbiletik aztertu dugu, turismo honen beharrak, bereiztasunak, ideiak, sustapena eta abar ezagutzeko.



- Bestalde, Basquetourrek turismo familiarrari buruz argiratutako foiletoa kontuan hartu dugu, Euskadiko eskaintza eta gure eskualdeari buruz dagoen informazioa ezagutzeko eta batzeko.
- Dokumentu honetan, turismo familiarraren inguruan aztertu dugun eskaintza eta ideiak atal ezberdinetan landuko dira:
 - Ekintzak./Esperientziak
 - Gastronomía.
 - Ekitaldiak.
 - Natura (hondartza, mendiak eta parke naturalak)
 - Kultura (Monumentu historikoak, museoak, ondare kulturalak).
- Bukatzerakoan benchmarkinaren ondorio nagusiak aipatuko ditugu.

Ekintzak

- Ekintza mota ezberdinak daude: antolatuak edo zure kabuz egitekoak. Atal honetan, batez ere, aurrez aurre antolatuak daudenak aipatuko ditugu. Zure kabuz egiteko ekintzak natura arloan ematen dira batez ere.
- Hainbat hirietan (Zarautzen, Toledon eta Alcossebren) txikientzat **ginkanak eta altxorraren bilaketak** eskaintzen dituzte. Horrela hiriaren istorioa eta baliabideak zabaltzen dituzte modu dibertigarri batean.
- Arabako Errioxan eta Alcossebren herrietan zehar **bisita teatralizatuak** egiten dituzte. Arabako Errioxan, upategietan, bisita mota hauek gero eta gehiago ematen dira: pertsonaiek alaiak dira eta bisitaren giroak komedia estiloa izaten du. Umeentzat ideia ona izan daiteke, haien partehartzea sustatzen ahalegintzen direlako eta gurasoei bisita beste era batean egiteko aukera ematen die.
- Bai Basquetourreko liburuxkan eta beste eremu turistikoan web orrialdetan umeekin **autobus edo itsasontzi turistikoetan igotzea** ekintza berezi bezala aipatzen da. Garraioei izen bitxiak jartzen dizkiete erakargarriak izateko, adibidez “Gasteiztxo” edo “Racimo tren” (mahats moduko tren).
- Gipuzkoako sagardotegi batzuetan umeentzako **sagardoaren prozesua** nola den zabaltzeko tailerrak eskaintzen dituzte. Ildo berean, baserriak haien atea irekitzen dituzte, tradizioa eta haien produktuak sustatzeko; adibidez Lastourren (Deban), txikiek artzainen bizimodua, zereginak eta abar bizi eta ezagutu ditzakete.
- **Abenturazko parkeak** oso deigarriak dira turismo mota honetan. Aztertutako helmuga gehienek garrantzi asko ematen diote bere sustapenari. Parke hauek natura, kirola, tailerra eta beste hainbat ekintza jartzen dituzte bisitarien eskura.

Ekintzak

- **Funikularrak** (Igeldokoa, Artxandakoa,...) asko agertzen dira turismo familiarreko helmugetan edo proposatutako planetan.
- Bilbo hiriak umekin Bilboko **jostailu dendak** bisitatzea proposatzen du. Eguraldi txarrarekin aukera bat izan daiteke.



Gastronomia

- Basquetourren liburuxkan Euskadiko gastronomia aipatzen da. Eskualdean, hiri bakoitzean gastronomiak bere atal propioa du. Horrela, bisitariak leku bakoitzean zer produktu gastronomiko ezagutu eta dastatu behar dituzten jakin dezakete. Umeei zuzenduta janariari buruzko istorioak eta ezaugarriak aurki ditzakegu.
- Gastronomia arloan eskaintzen diren ekintzak hauek dira:
 - **Upategi bat bisitatzea** (Arabako Errioxan, Gipuzkoan eta Bizkaian): *Batzuk umeentzako bisitak edo ekintza bereziak eskaintzen dituzte. Uztaberri garaian familientzat hainbat ekintza daude: denon artean mahatsak biltzea, mahats zapalketa, mosto dastaketak,...
 - **Sagardotegi bat bisitatzea** (Gipuzkoan): *Batzuk umeentzako bisita edo ekintza bereziak eskaintzen dituzte.
 - **Baserri bat bisitatzea** eta bertan ekoizten diren produktuak lantzea edo ezagutzea.
 - **Idiazabal Museoko** protagonista arratoi txiki bat da eta bertan gazta dastaketak eskaintzen dira. Gainera, bisita norberaren kabuz edo gida batekin egiteko aukera dago.
 - Gorbeian **ogia egiteko tailerrak** antolatzen dituzte.
 - Getarian eta Bermeon hainbat enpresek **kontserbak egiteko bisita** bereziak eskaintzen dituzte. Adibidez: Maisor (Getaria) enpresak antxo tailerrak eta dastaketak antolatzen ditu.



Gastronomia

- Mungiako (Bizkaia) **eziaren museoan** eta Aiako Pagoetako Parkean (Gipuzkoa) hainbat motatako bisitak eta dastaketak egiten dira.
- Donostian Michelin **Gidako 16 izar** daudela aipatzen da. Jatetxe hauek turismo familiarrari zuzenduta dauden ala ez zalantzan jartzen dugu.
- **Merkatuak eta ekitaldi gastronomikoak** oso erabakigarriak dira turismo familiarrarentzat. Ekitaldien atalean gehiago azalduko da.



Ekitaldiak

- Turismo arloan, orokorren, ekitaldiak oso erakargarriak eta garrantzitsuak dira, bai honen garapenerako baita sustapenerako ere.
- Aztertu diren helmugak familiei zuzendutako ekitaldiak antolatzen dituzte. Horretaz gain, publiko orokor bati zuzenduta daudenak, **umeentzako eta familientzako txokoak**, tailerrak, eta beste hainbat jarduera ere edukitzea gerta daiteke.
- Familientzako zuzenduta antolatzen diren ekitaldi interesgarrienak: Titirimundi (Segovia), Jornadas Templarias eta Barbakus-ko zirko festibala (Alcossebre), Nazioarteko magia festibala “Magialdia” eta Nazioarteko Jokoen Festibala (Gasteiz).
- Beste publiko bati zuzenduta dauden ekitaldiak baina **familiak parte hartzeko zerbait berezia antolatzea** kontutan hartzen dutenak: Nazioarteko Jazz festibalak (Donostian) haurrentzako programazio berezi bat dauka, “Txikijazz”, eta musika hamabostaldian txikientzat jardunaldi berezi bat antolatzen da.
- Hainbat **antzerkitan**, adibidez Gasteizko Antzerki Nagusiak igandero **familientzako programazio berezi** bat eskaintzen du eta Arriaga Antzokiak (Bilbo) **opera familia** artean antolatzen du.
- **Azokak** turismoaren parte garrantzitsu bat dira, hainbat bisitari mugitzen baitituzte: azokek gehienetan **haurrentzako txokoak dituzte**, tailerrekin, jokoekin, eta abar.




Kultura

- Kulturaren arloan familientzat aurkitu dugun eskaintza, **euriarekin egiteko planak** dira batez ere. Basquetourrek familientzat espresuki egindako liburuxketan atal berezi bat dago, non **euriarekin zer ikusi edo zer egin** azaltzen den. Bertan, Euskadiko **museoak, interpretazio zentroak, izotz pistak eta akuarioak** bisitatzea proposatzen da. Museo gehienetan haurrentzako tailerrak eta bisita gidatuak eskaintzen dira.
- Hota eskualdean (Huesca), familientzat oso aproposa den programazio kultural interesgarria eta era askotakoa eskaintzen da: **12 bisita eta esperientzia proposatzen dira familian egiteko**, bere historia eta tradizioa ezagutzeko.
- Atal honetan, **gatzeluak** eta haien **lorategiak** ere aipatzen dira, hurrek bertan jolas dezaten.
- Toledon “Rutas de Don Quijote” sustatzen dute eta Gasteizen **Katedrala ikusteko familientzat** bisita gidatu berezi bat eskaintzen da.
- Burdinbidearen Euskal Museoa aukera interesgarri bat bezala aurkezten da, museoa ikusi eta gero **tren “zahar” batean buelta bat ematea** ere posible da.



Natura

- Naturaren arloa da **familiantzako eskaintza handiena** duena. Hainbat aukera eta plan proposatzen dira helmuga guztietan, batzuk antolatutakoak eta beste batzuk norberak bere kabuz egitekoak. Naturan hainbat aukera dauzkagu. Gakoa, ondo komunikatzean dago, eremu batean dauden ondareak balioan jarri behar direlako.
- **Parke Naturalak:** Ibilbideak, tailerrak, aisialdirako guneak, zaldiz eta bizikletaz ibiltzeko aukera... Aztertu ditugun helmuga guztietan, ondare natural hauek aipatzen dituzte familia artean gozatzeko.
- **Hiriko/Herriko parkeak:** Errekurtso hauek hiri eta herri guztietan dauzkagu eta ez ditugu behar bezala sustatzen. benchmarkin-a egin ondoren, turismo familiarra ondo salduta egonez gero, duen garrantzi handia ohartu gara. Parkeetan adierazitako instalazioak eta planak: ahateei janaria eman, aisialdirako guneak, saskibaloiko eta futboleko zelaiak, patinak, bizikletak eta monopatinak erabiltzeko guneak, jogginga, skate parkeak, eskalatzemurrak, kiroldegiak, kulunkak, piknik egiteko guneak,...
- **Hondartzak:** Bisitarientzat, hondartzen sailkapen bat egitea komenigarria da: lasaitasuna, olatuen tamaina eta hondartzak eskaintzen dituen zerbitzuekin besteak beste. Sailkapena egiterakoan azpimarratzeko arloak ondorengoak dira: aisialdiko guneak, jolas guneak, kulunkak, txirristak eta tranpolinak, zein aktibitate praktikatu daitezkeen (surfa, windsurfa, surfboardinga, boleibola,...), tabernak, jatetxeak,...




Natura

- **Urtegiak:** Beste errekurtsio naturaletan aipatutako zerbitzuak eta instalazioak adierazten dira egindako benchmarkin-ean.
- Beste instalazio eta errekurtsio erakargarriak: golf zelaiak, parke **zoologikoak**, **ur-parkea**, **errekak**, ...
- Liburuxkan Ekainberri **kobazuloak** aipatzen dira, non familiarekin tailerrak eta bisitak egiteko aukera dagoen.
- **Arditurriko meategiak** (Aiako Pagoeta Parke Naturala) hainbat aukerarekin agertzen dira.
- **Norberaren kabuz eta familiarekin** egiteko hegazi ikustea sustatzen da. Adibide on bat Laguardian aurkitzen dugu, non **Biotopo** babestuan ibilbide batean zehar hainbat begiratoki dauden **hegaziak begizatze**ko.



Ondorioak

- Turismo familiarrari zuzenduta dauden ekintzak aztertu ditugun liburuxketan, eta helmugari edo ondare turistikoari buruzko ipuinak, kontakizunak, elezaharrak,... erabiltzen dira. Garrantzitsua da gurasoei erraztea zer kontu dieziaketen haien hurrei helmugetan. Bestalde, liburuxkak kolorez eta panpinez beteta daude erakargarriak izan daitezten.
- Liburuxka batzuetan jokoak agertzen dira: koloreztatzeko, letra zopak, lotzeko jokoak, 7 akatsak aurkitzekoak eta abar, betiere helmugarekin zerikusia dutenak hain zuzen.
- Funtsezkoa da arrazoiketa familian etortzen diren bisitariari egokitzea.
- Orokorrean, euria egiten duenean, museoak, interpretazio zentroak, akuarioak eta izotzeko pistak nabarmentzen dira. Horretarako, leku hauek turismo familiarrari zuzendutako eskaintza bat edukitzea garrantzitsua da. benchmarkin-a egin eta gero, kultura arloan aukera gutxiago daudela aipa dezakegu.
- Ostalaritza oso garrantzitsua da turismoaren arloan; horregatik, turismo familiarraren marka barruan dauden jatetxeek eta hotelek hainbat baldintza bete behar dituzte; adibidez: jatetxeen kasuan: haurrentzako menuak eskaintzea, tronak edukitzea. Hotelen kasuan: haurtzaindegi zerbitzua, logelak komunikatuak egotea,....
- Turismo familiarrari buruz hitz egiten dugunean, proposatzen edo eskaintzen diren aktibitateak eta planak norberaren kabuz egitekoak dira, gehienbat. Horregatik, bisitariari bere hurrekin helmugara iristean zer egin dezakeen esatea estrategia bat izango litzateke.



Urola Kosta Euskadiko Turismo Familiarrean

- Eskualdean apustu estrategiko bat egingo da turismo familiarri begira. Apustu hau faseka eramango da aurrera epe luze batean zehar, eskualdea ez dagoelako oraindik prest publiko honekiko eskaintza konpetitibo bat aurkezteko. Gaur egun urrats batzuk jada eman dira, baina oraindik eskualdeak bere presentzia indartu behar du turismo mota honetan.
- Kalitatezko eskaintza eta zerbitzu bat eman ahal izateko gure eskualdera datorren turistari, zera proposatzen da: eskaintza turistikoa eta eskualdeko baliabide turistikoa turismo familiarri zuzentzea hurrengo faseetan banatuz.
 - ✓ 1. fasea: 2017 bukaeran hasita 2019raino, eskualdeak jadanik eskaintzen dituen baliabideak turismo familiarren aterkiaren barnean sartzea izango da. Hau da, turismo familiarra erakartzeko janztea. Hurrengo diapositiban Euskaditik gure eskualdean familiek egin ditzaketen ekintzak zeintzuk izan daitezkeen zehazten da, betiere argumentario batean edo kontakizun batzuetan oinarrituta. Adibidez: gure euskarriei keinu bat egitea, produktu eskaintzaren egituraketaren arlo ezberdinen artean, familian zer egin proposatzea.
 - ✓ 2. fasea: 2019tik 2021raino. Apustu estrategikoa aurrera eraman, hau da, familia-turismoari zuzendutako produktu zigiluekin lan egin, eskualdeko jatetxe eta hotelen eskaintzaren barnean familia-turismoarentzako aukerak areagotu, hainbat produktu turistikoa berezi sortu target honi zuzenduta etab.

GASTRONOMIA

- ✓ Zarauzko Azoka.
- ✓ "Getariako Txakolina"
- ✓ Arrain kontserbak (Maisor Getaria, denda eta eskaintzen duen tailerra azaltzen da)



KULTURA

- ✓ Herri arrantzaleen alde zaharra. (Getaria)
- ✓ Juan Sebastián Elkano (Getaria): munduko lehenengo bira eman zuen marinela.
- ✓ Cristóbal Balenciaga Museoa (Getaria)
- ✓ Algorriko Interpretazio Zentroa (Zumaia)
- ✓ Agorregiko burdingintza eta errotak (Pagoetako Parkea, Aia)
- ✓ Arraunetxe Zentroa (Orio)
- ✓ Zarauzko Galtxagorriak: euskal mitologia ezagutzeko jokoak.



NATURA


- ✓ San Telmotik ikusten den ikuspegia.
- ✓ Zumaia edo Getariako kostatik nabigatzea.
- ✓ Zumaia Fysch-a.
- ✓ Aiako Pagoetako Parkea (Burdgingintza eta lorategi botanikoak).
- ✓ Zarautz eta Getaria arteko itsasoko ibilbidea.
- ✓ Iñurritzako dunak eta biotopoa.
- ✓ Uretako kirolak praktikatzeko: Itzurungo hondartza Zumaian eta Zarautz.
- ✓ Egun lasaia pasatzeko: Malkorbe eta Gaztetape hondartzak Getarian.
- ✓ San Anton mendiko itsasargia.



AGENDA

- ✓ San Telmoko jaiak (Zumaia)
- ✓ Balearen eguna (Orio)
- ✓ Olagarroaren eguna (Zumaia)
- ✓ Txakolin eguna (Zarautz)
- ✓ Elkanoren lehorreratzea (Getaria)
- ✓ San Pedro eguna (Orio)
- ✓ Euskal Jaia (Zarautz).
- ✓ Kaleko antzerkia (Zarautz)





Sare sozialen benchmarkin-a

FOURSQUARE

minube

Sare Sozialak




















- 2014-an dinamizazio planerako egindako benchmarkin-a eguneratu dugu. Euskal kostaldeari (Costa Vasca) dagokionez, oraindik ez dauka sare sozial mugimendurik izen horrekin. Hau da, Gipuzkoako Kostaldeko herriek ez dute erakusten identitate unitario bat.
- Hurrengo orrietan eguneratu dugun informazioaren eskema:
 - Sare sozial nagusiak zein diren ikusi eta urte hauetan eman den eboluzioa.
 - Hurrengo zonaldeek sare sozialetan daukaten presentzia:
 - Gipuzkoa
 - Bizkaiako kosta
 - Bizkaia
 - Kantabria
 - Asturias
 - Bidasoa



www.kostaldea.eu / www.costavasca.org

Sare Sozialak






NORAKO HAUETAN SARE SOZIALETAN DAGOEN MUGIMENDUA

					Feed								
	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	✓	✓	✓	✓	✓	X	X	X	X	X	X	X	X
	✓	✓	✓	✓	✓	X	X	✓	X	X	X	X	X
	✓	✓	✓	✓	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	✓	✓	✓	✓	X	✓	✓	✓	✓	✓	X	X	✓
	✓	✓	✓	✓	X	✓	✓	✓	X	X	✓	✓	✓
	✓	✓	✓	✓	X	✓	X	✓	X	X	X	✓	✓

Sare Sozialak

	2014 www.visitgipuzkoa.net	2018 www.sansebastianregion.com	Igoera (2014-2018)
	1.407 Jarraitzaile	18.469 Jarraitzaile	%1.312,6 Jarraitzaile gehiago
	1.300 Tweet 122 Argazki/Bideo 1.726 Jarraitzaile	3.173 Tweet 667 Argazki/Bideo 5.083 Jarraitzaile	%244 Tweet gehiago %546,7 Argazki/Bideo gehiago %294,5 Jarraitzaile gehiago
	68 Argazki	68 Argazki	%0 Argazki gehiago
		89 Jarratzaile 127.854 visita	Berria
Feed			Berria











Sare Sozialak

	2014 www.bizkaiacostavasca.com	2018 www.bizkaiacostavasca.com	Igoera (2014-2018)
	1.591 Jarraitzaile	2.647 Jarraitzaile	%166,4 Jarraitzaile gehiago
	✗	4.474 Tweet 507 Argazki/Bideo 999 Jarraitzen 2.340 Jarraitzaile	Berria
	✗	56 Post 236 Jarraitzen 697 Jarraitzaile	Berria
	✗	0 Jarratzaile	Berria
Feed	✓	✓	✓








Sare Sozialak

	2014 www.mylbilbaobizkaia.com	2018 www.mylbilbaobizkaia.com	Igoera (2014-2018)
	2.775 Jarraitzaile	3.256 Jarraitzaile	%117,33 Jarraitzaile gehiago
	2.370 Tweet 397 Argazki/Bideo 4.303 Jarraitzaile	5.907 Tweet 1.557 Argazki/Bideo 5.504 Jarraitzaile	%249,2 Tweet gehiago %392 Argazki gehiago %128 Jarraitzaile gehiago
	1.919 Argazki	3.300 Argazki	%171,96 Argazki gehiago
		152 Jarratzaile 82.215 bisita	Berria










Sare Sozialak

Cantabria Infinita	2014 www.turismodecantabria.com	2018 www.turismodecantabria.com	Igoera (2014-2018)
